



Arloa: EROSKETAK ETA ZERBITZUAK



Etxeko ekonomia



1. Helburua

Etxeko baliabideen kudeaketa arduratsu baten garrantzia barneratzea, kudeaketaren alderdirik ohikoenetara hurbilduz, eta erabaki-hartze autonomiaduna, arduratsua eta norberaren premiekiko koherentea bultzatuz.

2. Edukiak

- Familia-aurrekontuaren kontzeptua
- Etxeko aurrekontuaren eta baliabideen kudeaketa:
 - Funtsezko alderdiak
 - Diru-sarrerak
 - Soldata
 - Beste batzuk: prestazioak, sariak, noizbehinkako lanak
 - Gastuak
 - Gastu motak:
 - Finkoak (hornidurak, zergak, erkidegoa, aseguruak, maileguak, eskola, erosketak: arropa, elikadura, higiena eta garbitasuna)
 - Horniduren fakturretako oinarrizko elementuak
 - Zerga eta aseguru ohikoenak: xedea eta ezaugarriak
 - Noizbehinkakoak (entretanimendua, aisia, oporrak, autoa, mugikorra, ikasketak: eskola-materiala)
 - Ezustekoak (medikuak, matxurak, konponketak)

Ariketak

3.1. Tailerrari dagokionez

ERDIKO MAILA

ARIKETA 1: IDEIA-JASA

Ideia-jasa bat proposatuko da, eta arbelean idatziko da etxe batean dauden gastu nagusiez jabetzeko, baita gastu horiei aurre egitea ahalbidetzen duten diru-sarrerez jabetzeko ere.

ARIKETA 2: SUPERMERKATURA GOAZ

Ideia-jasan adierazitako gastuetatik, elikadura-gastuak hartuko dira. Gastu horiei buruzko ahalik eta ideiarik errealistena izateko, egun baterako menu orekatu bat egingo da, 5 otordu barnean hartuz, eta menu hori egiteko beharrezko osagaiak apuntatuko dira. Ondoren hurbilen dagoen supermerkatua joango dira, edo bestela eskolakoa erabiliko da (talde bakoitzak dituen aukeren arabera), erosi behar diren produktuen prezioak jakiteko.

Puntu honetan tailerraren lehen zatia amaitutzat emango da.

ARIKETA 3: KALKULUAK EGITEN DITUGU

Tailerraren bigarren zatian, lehen zatian landutakoa erreparatuko da eta beharrezko kalkuluak egingo dira egun bati dagokion elikadura-gastua jakiteko, baita hilabete osoan zenbat izango litzatekeen ere.

ARIKETA 4: “GASTATZEN” JOKOA

Joko horren bitartez etxe batean dauden gainerako gastu batzuei buruzko gogoeta egingo da: garraiobideak, ospakizunak, ezustekoak, fakturak, aisia, beste batzuk.

MAILA AURRERATUA

ARIKETA 1: HASIERAKO EGOERA

Egoera ekonomiko bat planteatuko zaie, eta horretara egokitu beharko dira. Txantiloia bat emango zaie, sortzen diren diru-sarrerak eta gastuak eta hasiera batean duten dirua bertan apuntatzeko, eta gastatzen joaten direna deskontatzen joateko.

ARIKETA 2: SUPERMERKATURA GOAZ

Egin beharreko lehen gastuak elikadura, garbiketa eta etxeko oinarrizko tresnak izango dira. Elikadura-gastuei buruzko ahalik eta ideiarik errealistena izateko, egun baterako menu orekatu bat egingo da, 5 otordu barnean hartuz, eta menu hori egiteko beharrezko osagaiak apuntatuko dira. Argi dagoenez astero garbiketa-produktu berdinak erostea ez dela beharrezkoa izango, baina kontuan izan behar dugun gastua denez, beren zerrendan platerak garbitzeko eta etxeko erabilera anitzeko garbigarria (zoru-garbigarria eta abar) sartzeko eskatuko zaie, hasierako egoeran agertzen ziren gastuez gain, noski.

Ondoren hurbilen dagoen supermerkatua joango dira, edo bestela eskolako erabiliko da (talde bakoitzak dituen aukeren arabera), erosi behar diren produktuen prezioak jakiteko.

Puntu honetan tailerraren lehen zatia amaitutzat emango da.

ARIKETA 3: KALKULUAK EGITEN DITUGU

Tailerraren bigarren zatian, lehen zatian landutakoa erreparatu da eta beharrezko kalkuluak egingo dira orduraino sortutako gastua jakiteko.

ARIKETA 4: "GASTATZEN" JOKOA

Joko horren bitartez etxe batean dauden gainerako gastu batzuei buruzko gogoeta egingo da: garraiobideak, ezustekoak, fakturak, aisia, beste batzuk.

3. Gaitasuneko lotura

4.1. Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, OLH eta eskola-jatorria duten taldeak

	Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia	Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia	Elkarbizitzarako konpetentzia	Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
Erdiko Maila		✓		
Maila Aurreratua		✓		

	Izaten ikasteko konpetentzia	Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia	Matematikarako konpetentzia	Zientziarako konpetentzia
Erdiko Maila	✓	✓	✓	
Maila Aurreratua	✓	✓	✓	

	Teknologiarako konpetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia	Arterako konpetentzia	Konpetentzia motorra
Erdiko Maila				
Maila Aurreratua				

4.2. Beste talde batzuk

	Ama- hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna	Atzerriko hizkuntzetan komunikatzeko gaitasuna	Matematika- gaitasuna eta oinarrizko gaitasunak zientzia eta teknologiaren alorrean	Gaitasun digitala
Erdiko Maila	✓		✓	
Maila Aurreratua	✓		✓	

	Ikasten ikasteko gaitasuna	Gaitasun soziala eta zibikoa	Ekimenaren zentzua eta enpresa- espiritua	Kultura- arloko kontzientzia eta adierazpena
Erdiko Maila	✓			
Maila Aurreratua	✓			

5. Baliabideak

Informazio-gidak

- Banku Zerbitzuen Gidaliburua. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. (Eusko Jaurlaritza). 2004
- Kontsumitzaileen gainzorpetzea (ADICAE: Banku, Kutxa eta Aseguru Erabiltzaileen Elkarte). Merida, 2004
- Finantza-zerbitzuen kontsumitzaileen gainzorpetzea (Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Kontseilua). Abendua, 2001.
- Espainiarrak eta gainzorpetzea. Kreditu-produktuei buruzko informazioa. (CEACCU: Espainiako Etxekoandreen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkartearen Konfederazioa). 2003.
- Liburuxkak
 - Gainzorpetzearen prebentzioa (Kontsumitzailearen Europako Zentroak), Kataluniako Generalitatea. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.
 - Kontsumorako kredituak eta zorpetzea. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. (Eusko Jaurlaritza).
 - Finantzatutako erosketak. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila (Eusko Jaurlaritza).
- Aldizkariak
(www.kontsumobide.eus, ikus *Dokumentazio Zentroa - Aldizkariak*):
 - 7. zk. aldizkaria (2009): “Kontsumo eraginkorra etxean”
 - 6. zk. aldizkaria (2009): “Gastu arduratsua”

Material didaktikoak:

Eskatu informazioa Kontsumobiden. Prestakuntza- eta informazio-zentroak

- Familia-aurrekontuko familia-tailerra, “Bidezko gastua”, mailegu-materiala
- Familia-aurrekontuko elkarteen maletak, “Nork darama potoa?”. (mailegu-materiala)
- CD+Liburua. Kontsumoa begi matematikoarekin. (mailegu-materiala)
- Webquest “Familia-ekonomia”
http://www.kontsumobide.euskadi.eus/y10-kbform6/es/contenidos/informacion/kb_webquest_alimentacion/es_wqalimen/principal.html

Web-orriak

- KONTSUMOBIDE, KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
<http://www.kontsumobide.eus>
- KONTSUMO, ELIKAGAI SEGURTASUN ETA NUTRIZIORAKO ESPAINIAKO AGENTZIA
http://www.aecosan.mssi.gob.es/AECOSAN/web/home/aecosan_inicio.shtml
- KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN ELKARTEA
<http://www.ocu.org>
- KONTSUMOAREN KATALUNIAKO AGENTZIA
http://www.consum.cat/index_es.html
- KONTSUMITZAILEAREN EUROPAKO ZENTROA ESPAINIAN
<http://www.cec.consumo-inc.es>

Helbide interesgarriak

Kontsumobide-ren kontsumoaren alorreko prestakuntza eta informazio zentroak

Vitoria-Gasteiz

Adriano VI, 20-1º. 01008

Telf: 945 01 66 00

Fax: 945 01 66 01

Email: formacion-araba@kontsumobide.eus

Bilbao

Nicolas Alcorta, 2. 48003

Telf: 94 403 22 20

Fax: 94 403 22 21

Email: formacion-bizkaia@kontsumobide.eus

Donostia / San Sebastián

Zarategi ibilbidea 82-84 Atz. 20015

Telf: 943 02 25 90

Fax: 943 02 25 92

Email: formacion-gipuzkoa@kontsumobide.eus